

# Aretxagazeta

Aretxabaleta • 1996ko azaroak 21 • 110.zka. •



Bainuetxen industrialdea

Amaia Vazquez: emakumearen arazoak

Pelotari profesionalak


Umetako jolasak

# Gero eta gertuago




- 400.000 pezeta arteko deskontua
- Finantziazio berezia: hiru kuota arte dohain

# MECA



**RENAULT**



## Umetako zein jolas duzu gogoan?

*Kontxi Elorza*  
(*Etxeagoandrea*)

*Sokasaltoka, harrapa-  
ketan, txorro-morroka, tor-  
toliska, e.a. jolasten ge-  
nuen. Mutilek kanikaka,  
futbolean... Oraingo umek  
jostailu gehiago dituzte,  
baita telebista ere.*



*Felix Altube*  
(*Langilela*)

*Pelotan ibiltzen  
ginen. Sakalamandaka,  
kakatorreka. Garizuman  
txirikiletan jolasten  
genuen. Koruetako eliz-  
pean kantoike ere jolas-  
ten genuen.*



*Jose Mari Etchebarrieta*  
(*Langilela*)

*Polizia eta lapurretara  
jolasten genuen. Dokean eta  
ezkutaketan ere bai. Lausi-  
tara arrantzan joaten ginen.  
Futbolean ere sarri ibiltzen  
ginen.*



*Mertxe Lopez*  
(*Langilela*)

*Ni mutilekin ibiltzen  
nintzen. Gordegordeka, txo-  
rro-morroka... Pelotan eta  
futbolean ere bai. Taldeko  
jolasak nituen gogoko.*



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak diruz  
lagundutako  
aldizkaria



Aretxabaletako  
Udalak diruz  
lagundutako  
aldizkaria



## ESKUTITZAK

### ALTUNA MEDIKUAREN ALDE

*Aurreko asteetan jakin dugu gure artean dagoen medikuaren plaza, Manuel Altunarena, hain zuzen, Gasteizen bizi den beste mediku batek eskuratu duela.*

*Lerro hauen bitartez gure desadostasuna agertu nahi dugu horrelako jokaeren aurrean. Ez dugu uste arrazoi burokratikoak bakarrik nahikoak direnik herri batean 8 urte daraman mediku on bat baztartzeko.*

*Zortzi urte hauetan Altuna medikua erabat integratu da gure herrian. Hizkuntzatik hasi eta zerbitzuen eskaintzan jarraituz, ezin hobea izan da eta da bere lana. Inguruko auzo guztietako pertsonak eta beharrak ezagutzen ditu, herrikoak zer esanik ez. Jendeak asko estimatzen du, bere hurbiltasuna nabaritzen da. Beti prest laguntzeko, bere zerbitzua emateko... Zer gehiago?*

*Ez dugu uste, ere, pazienteak jasan behar dituenik burokraziaren ondorioak. Zergatik ukatu nahi dizkigute mediku on baten zerbitzuak? Zergatik, ezer egin aurretik, ez da kontutan hartzen pazienteen iritzia eta balorazioa? Gizarte demokratiko batetan bizi omen gara. Horrela diote, behintzat. Baina eguneroko ekintzak azaltzen digute demokrazian egindako legeak ez direla demokratikoki erabiliak. Dagoeneko, herri mailan, firma asko bildu dira Altuna medikuaren alde, eta aldaketaren aurka. Egin dezagun gure esku dagoen guztia estamentuek ere gure aldarrikapena jaso eta entzun dezaten.*

**Manuel Altuna medikuaren pazienteak**

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Iosu Urkia. **Erredakzio-kontseilua:** Imanol Aginagalde, Miren Eraña, Arantzazu Abasolo, Ines Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Ana Eriz. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigrif. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. ISSN: 1134-2609  
Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Aretxagazeta



## VIII. Eskaparate lehiaketa

Aurten ere eskaparate lehiaketa antolatu du udaletxeko kultura batzordeak.

Lehiaketa honetan Aretxabaletako denda guztiek hartu dezakete parte. Erakusketa, abenduaren 8tik urtarilaren 6ra bitartean egin beharko da. Imaginazioa, originaltasuna, eta eskaparateak duen gabon kutsua kontutan hartuko dira saria ematerakoan. Baina eskaparate horretan dendako ohizko produktuak azaldu beharko dira.

Sariak hauek izango dira: 1.go saria, 35.000 pezeta eta plaka; 2.a 25.000 pezeta eta 3.a 15.000 pezeta.

Erabakia abenduaren

31a baino lehenago emango da jakitera.

Lehiaketa egunetan zehar, eskaparateak, lan egunetan izteko ordu-rarte eta jai egunetan gaueko 9ak bitartean argituak egotea komenigarria da, horrela epaimahaiaren lana errazteko asmoz.



## Kurtzebarri eskolarako logotipo lehiaketa

Kurtzebarri eskolak bere identifikaziorako eta errepresentaziorako erabiliko duen logotipoa aukeratzeko lehiaketa antolatu du.

Logotipoan Kurtzebarri Eskola hitzak agertu beharko dira. Diseinua eskolako edozein paperetan eta gunetan azaldu daitekeenez (txosten, ohar, kartazal, pareta...) jatorrizko bi diseinu aurkeztu beharko dira: bata koloretan (kolore nagusia berdea izango delarik) eta bestea zuri beltzean.

Eskolak, Kurtzebarri mendiaren izena daramanez, logotipoan mendia irudikatuko duen ikurra agertzea baloratuko da. Lanak aurkezteko epea azaroaren 25etik abenduaren 12ra bitartekoa da. Lan bakoitza sobre itxi batekin aurkeztuko da eta bertan partaidearen izena eta datu guztiak azaldu beharko dira. Lanak Kurtzebarri eskolako zuzendaritza bulegoan (Santa Kurtz 19, 30 postakutxatila) entregatu beharko dira. Epaimahaia eskolako kide batzuk osatuko dute. Sari bakarra izango da, 50.000 pezetakoa.

## Anbulategian aldaketak

### □ Altuna medikuaren aldeko firma batzea

Zortzi urtetan herriko medikua izan ostean Manuel Altuna medikuaren lanpostua Juan Jose Galdos Ayalak hartuko du. Altuna ebentual zegoen osasun zentruan eta postuak publikora irten zuen.

Herritarrak oso gustora daude Altuna medikuaren zerbitzuaz eta aldaketa honen aurkako desadostasuna adierazteko firmak batzen hasi dira. Herriko bi farmazietan eta beste zenbait dendetan jarri dituzte firmak

batzeko orriak.

Baina hau ez da anbutegian gertatuko den aldaketa bakarra. Luis Orruño medikuak ere aldaketa eskatu du eta Zarautzera joango da. Oraindik ez dago jakiterik bere lekua nork hartuko duen.

Honez gain, harreran zegoen Manoli Tamayo erizain laguntzaileak ere bere lanpostua utzi beharko du eta honen ordeztu Mari Jose Iñarra arrasatearra etorriko da.

### EKIN BIDEO

Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak...  
Enpresendako promozio bideoak.  
Eskola eta Elkarteendako  
promozioak eta ekintza bereziak.  
Etxeetan grabatutako bideoen  
muntaiak.  
Otalora 15 • ARETXABALETA •  
Tfnoa: 79 78 37

### TXIMAK

ileapaindegi  
mistoa

Herriko Plaza, 5 - behea  
Tfnoa: 79 83 64  
ARETXABALETA



## Pandero ikastaroa martxan da

Musika eskolan pandero zarata ere entzuten da orain. 12 lagun hasi dira panderoa ikasten Maider Redondo irakasle ordiziarrarekin.

Hasi besterik ez dira egin eta momentuz erritmoa lantzen ari dira. Gero musikarekin batera joko dute eta azkenik trikitiaren laguntzaz. Oraindik asko ikasi beharko dute trikitiarekin batera jotzeko baina gogoia behintzat ez zaie falta eta hori da garrantzitsuena. Animo ba!

## Margo ikastaroa

Astelehenetik ostegunera bitartean eta 6etatik 8etara emango da kultur etxeko margo lokalean. Adin guztietakoei zuzenduta dago. Pauxi Bengoa eta Mikel Arroiabe izango dira maixuak. Prezioa: 3.000 pezeta hileko. Ikastaroan apuntatu nahi izan ezker margo lokaletik pasatu daiteke (kultur etxean).



## EXPRESS AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16  
Tfnoa: 79 23 43

## ENBOR

*Eloy Borgas Iglesias*  
• Sukalde muntatzailea  
• Aroztegia orokorrean

Santa Kurtz, 24 Aretxabaleta  
Tfno-Faxa: 79 02 51

## JOLAS LEKU

Mitarte, 10  
Aretxabaleta

## IZOTZ Taberna

Mitarte, 16 • Tfnoa: 79 73 65  
Aretxabaleta

## GARBITU S. KOOP

*Garbiketa  
orokorrak.*

Errekabarren 3- Behea  
Tfnoa: 79 01 28

## Artano Taberna


Herriko Plaza  
ARETXABAleta



## TABERNA-BERRI JATETXEA

Durana, 26  
Tfnoa: 79 20 67  
ARETXABAleta

# Bainuetxe inguruan industrialdea eraikiko da



Bainuetxetik  
Urkulura  
bidegorria egingo  
da

Udalbatzak 33. sektorea, hau da bainuetxe ingurua lur industrial moduan kalifikatzea onartu zuen. Hasieran lur industrial 3 h.takoa bazen ere, industri pabiloiak prezio onean eskaintzeko eta urbanizazio guztia batera egiteko 1,7 h. gehitu dira. Horrela, bainuetxe inguruko 4,7 h. erabiliko

dira lur industrialerako.

1984. urteko arau subsidiarioetan Urkulura igotzeko errepidea egitea proposatzen zen. Baina gaur egungo aldaketen arabera, errepidea egin beharrean bidegorria egingo da, oinezkoentzako eta bizikletentzako izango dena.

Era berean, bertan dauden zuhaitzak eta iturria errespetatu egingo dira zona berdea moduan.

Industrialde berriko lanekin laster hasi nahi du Udalak. Horretarako, zatikako egitamuaren idazketa agindu da eta ondoren urbanizazio eta ejekuzioarena egingo da.



## URBALTZ

### TABERNA

**Mitarte, 21 behea**  
**Tfnoa.: 79 79 79**  
**ARETXABALET**

## OSKAR

---

HARATEGIA

Loramendi, 1  
☎ 79 71 69

**MEMESA S.L.**

**Industriaren alde**

Santa Kurtz, 25-27  
Tfnoa: 77 11 75  
**ARETXABALET**

**ARETXABALET**  
**ITURGINTZA**

Durana, 16  
Tfnoa: 79 17 53  
**ARETXABALET**

## Maritxu

Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24  
Tfnoa: 79 23 53  
**ARETXABALET**

Berrikuntzak



**MODAN**  
**DAGOEN**  
**GUZTIA**

Iparragirre, 4 Tfnoa.79 21 24



**SEGUROS LAGUN ARO**  
**ASEGURUAK**

**Euskadiko Kutxa**  
**Taldekoa**

Errekabarren, 20 behea  
20.550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)  
Tfnoa: (943) 79 77 00 - 79 78 11

# Zinea

Azaroak 23, 24, 25

## LAS DOS CARAS DE LA VERDAD

Azaroak 24 (umeentzat)  
**BABE EL CERDITO VALIENTE**

### Ordutegia:

Eguakotxa-zapatua: 10,15

Domeka: 5etan (Umeen sesioa)

7,30

10,15

Astelehena: 10,15

**Oharra:** Azaroaren 29tik abenduaren 2a bitarteko aste horretan ez da zine emanaldirik egongo Murruxikoko proiektioak direla eta.

## LAS DOS CARAS DE LA VERDAD

EEBB 1996

**AKTOREAK:** Richard Gere (Martin Vail), Laura Linney (Janet Venable), John Mahoney (Shaughnessy), Alfre Woodard (Shoat), Frances McDormand (Molly), Edward Norton (Aaron/Roy).

**ZUZENDARIA:** Gregory Hoblit.



### Las dos caras de la verdad

Aaron Stampleri (Elward Norton), diru bako gazte bati, Chicagoko apezpikua hiltzearen kargua leporatuko diote. Poliziak biktimaren odol arrastoak aurkitu ditu bere arropan, beraz mundu guztiak argi du erruduna dela. Martin Vail (Richard Gere), abokatu azkarra bezain harroputza, Aaronen defentsaz arduratuko da. Vaili ez dio bat ere axola bere bezeroa benetan erruduna den ala ez. Epaiketak oihartzun handia izango du prentsa eta telebistan eta Vail bere burua erakusteko aukera aproposa eta ezin hobea dela konturatu da. Ez dio inporta Aaron, kasuak emango dizkion dohainezko publizitatea eta ospea baizik. Juizioa aurrera doala abokatuaren ikuspuntua aldatzen joango da. Aaronen ez du apezpikua hil, Royek hil du. Baina Aaron eta Roy pertsona bera dira. Korapilo etiko ederra gure abokatu haundi-mandiarentzat.

Legeari buruzko ia pelikula guztiak moduan, topikoz beteta dago: abokatu, fiskal eta epaileen arteko harreman afektiboak, morbo apur bat, gezur eta ustekabeak... "Las dos caras de la verdad" pelikula entretenigarria da, batez ere epaiketei buruzko jeneroa maite duzuenontzat.



ARRASATE ERDIALDEKO  
MERCATAL ETA ZERBITZUEN ELKARTEA

## Arrasate erdian, Deba Garaiko merkatalgunerik handienean, erosketak izen propioa du.



Azaroaren 18tik urtarrilaren 7ra arte Arrasate erdiko 100 komertzio eta zerbitzuko **AUTO BAT** dohainik lortzeko aukera ematen dizute. Etorri eta egiazta ezazu !!!

Erdialdea bisitatzen duzunean aparkalekua erabili ezazu. Denok eskertuko dugu.





**T  
X  
i  
L  
A  
R  
R  
A**



**ELIKADURA  
BEREZIA**

Durana, 35  
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9  
Tfnoa: 79 44 28  
ARETXABALETA




Zenbaki

**Aholkularitza**

Basabe Industrialdea  
Aretxabaleta

Tfnoak: 79 88 75  
79 75 99



**LOGOPEDIA  
ZENTRUA**

**ARRASATE**

HIZKUNTZ-ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk  
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

# Biztanle ugari Urkulun (1)

**Udatik ona  
Urkulu ahatez  
gainezka ageri  
zaigu. Zein ote da  
gertaera honen  
arrazoia? Zein  
ahate mota dago  
bertan? Nolakoak  
dira?**



Urkuluko urtegiak eskaintzen dituen bizi baldintzak benetan onak dira espezie askorentzat, lasaitasuna, elikagaien ugaritasuna, toki zabalak...

Bizi-baldintzak oparoak direnean, neurrigabeko hazkuntza demografikoa eman ohi da. Historian zehar sarri gertatu den fenomeno hau, eta ikerlari ugari saiatu da populazioa neurtzen duten hainbat parametro kalkulatzeko formula idealak asmatzen, hala nola Malthus, edo bestetik Lotka eta Volterra.

Urkuluko urtegiak eskaintzen dituen bizi-baldintzak benetan onak dira espezie askorentzat (lasaitasuna, elikagaien ugaritasuna, toki zabalak,...). Gure herriko urtegiak dituen berezitasun hauen eraginez ahate, eta beste hainbat hegazti akuatikoren populazioek nabarmen gora egin dute eta dagoeneko inguru guztian zabaldu dira.

Gertakari hau oso positiboa eta pozgarria ere bada, gaur egun Euskal Herrian bizi dugun egoera patetikoaren barnean irla bat baino ez bada ere.

Bost ahate espezie ditugu Urkulun:

- Ahate mokozabala  
(*Pato Cuchara, Anas Clypeata*)
- Basahatea  
(*Anade real, Anas platyrhyncha*)

- Murgilaria  
(*Porrón común, Anthya ferina*)
- Murgilaria mottoduna  
(*Porrón moñado, Anthya fuligula*)
- Uroilo nagusia  
(*Focha común, Fulica atra*)

Ahatez gain badugu beste hegazti akuatikorik ere, hala nola:

- Lertxun hausgara  
(*Garza real, Ardea cinerea*)
- Ubarroi mottoduna  
(*Cormorán moñado, Phalacrocorax aristotelis*)

Azkenik, ezin aipatu gabe utzi urertzak kolonizatzen dituzten beste hegazti batzuk ere. Adibide gisa pare bat idatziko dizkizuet:

- Pirripio hegazabala  
(*Totavía, Lullula arborea*)
- Ur-zozoa (*Mirlo acuático, Cinclus cinclus*)

Hurrengo Aretxagazetan espezie hauek aurkezten saiatuko natzaizue.

✍ Mikel Arroia

# Amaia Vazquez: Emakumeak borroka haundiago egin behar du espazio publikoan

Amaia Vazquez psikologo sexologoa dugu. Giza gaietan aditua, Hernanin bizi da gaur egun.

Loramendi Elkarteko Tril emakume taldeak antolatu dituen zine-Forumak zuzentzen ari da Amaia. Bide batez, bereganatu jo dugu gaur egungo emakumeak bizi dituen arazo garrantzitsuenak zeintzuk diren jakiteko eta baita bere erronka zein izan behar den jakiteko ere.



• Azaroaren 14an izan genuen lehen zine foruma eta oraindik beste bi izango ditugu. Zertan datza saio hauek?

Emakume batek bere bizitzan zehar izaten dituen arazoak zeintzuk diren ikusiko da: autoestima, amatasuna, harreman afektiboak, krisialdi desberdinak, boterea... Arazo hauek isladatzen dituzten pelikulak ikusiko dira lehenengo. Ondoren eztabaida desberdinak egingo dira.

• Zeintzuk dira konkretuago emakumeak gaur eguneko gizartearen dituen arazoak?

Beno, ez dira berdinak emakume gazte baten edo heldu baten arazoak.

Gaurko neska gazteak esaterako, autonomia ekonomikoa zein pertsonala lortu du. Garbi dute ama-

*“Emakumeoi ama, profesional eta amorante onak izatea eskatzen zaigu aldi berean”*

tasuna ez dela emakume identitatea emango diena. Harreman afektiboak beste modu baten planteatzen ditu gazteak. Plazerraren konkistan dexente aurreratu dugu baina honek ez du esan nahi mutilekin berdintasuna lortu denik.

Estereotipo sexualak dexente gelditzen dira oraindik ere. Nire ustetan amen baloreen transmisioa ez da asko aldatu sexua-

*“Euskal Herriko emakumea komunikaziorako itxia da baina erreibindikazioetarako borrokalaria”*

litatean. Lan eta ikasketen arloan bai oster.

• Amatasunera heltzen den emakumeak, zeri aurre egin behar dio?

Ama, profesionala eta amorante ona batera izatea eskatzen zaigu. Gaur egun amatasuna beste modu batean planteatzen da baina hala eta ere zama bat da emakumearentzat.

• Eta emakume nagusiagoetan zeintzuk dira

arazoak?

Kasu honetan emakume gehienak ez dira langileak etxeoandreak baino. Urteetan ondoan izan duten gizonarekin ez dakite zer egin eta euren autoestima krisian sartzen da.

Beste kasu batzutan, sentimentuak komunikatzeko beharra eta denbora librean zer egin izaten da beraien kezka nagusia.

• Egoera hauen aurrean zein da emakumearen erronka?

Gazteek borroka haundiagoa egin behar dute espazio publikoan sartzeko baina ez gizonari konpetentzia egitearren. Sexualitateko gaietan ere aurrera pausoak eman behar ditugu balore sexualak aldatzeko.

Gazteek espazio publikoan parte hartzeko borroka haundiagoa egin behar dute, emekumeen nahiak, asmoak,... plazaratuz. Era berean gure autoestima lantzeko lan egin behar dugu. Gure buruaz seguruago aurkituko gara horrela eta krisiei samurrago aurre egingo diegu.

• Bukatzeko Amaia, Euskal Herriko emakumea zelakoa da beste herrialde batzuetakoekin konparatuz?

Nik uste dut lan aldetik eta kultura aldetik maila haundia daukagula. Emakume euskalduna oso borrokalaria da, itxia komunikaziorako baina zenbait gauza erreibindikatzeko borrokalariagoa.



# Aspaldiko jolasak

**Bi makila luze elkartzen dituen soka eta diaboloa bera nahikoa dira arratsalde entretenigarria pasatzeko. Galdetu bestela plazan dabilten neska-mutilei. Zein baino zein abilago ibiltzen dira arratsalde osoa inungo bideojolas-en beharrik gabe.**

**Diaboloa gure artean agertu den era berean aldenduko zaigu "moden legeak" agintzen duenean. Antzeko zerbait gertatu zen antzinako jolasekin, poliki-poliki iraganean ahaztuta gelditu ziren.**

**Txirikiletan, tortoliska, elabi-elabika... ea berriro lehenagoko jolasak berreskuratzen ditugun!!!**

Erraz konformatzen ziren garai hartako umeak. Beharko konformatu ere, orduan ez baitzegoen ingeles, akordeoi edota solfeoko klaseetara joan beharrik. Maistrak agindutakoa egin ostean arratsalde osoa zeukaten jolasteko, beti ere, etxeko mandatuak egin ostean.

Orduko Aretxabaletak ez zuen gaurkoak besteko zabalera, ondorioz herriko gazte gehienak elkarrekin jolasten zuten, lagun koadrila batean. Egunero bilatzen zuten tarteren bat koadrila elkartu eta jolasean ekiteko. Eskolan bertan, errekreio orduan, arratsaldean eta baita afalostean ere uda partean. Zuetako askori ezagunak

egingo zaizkizue hemen agertuko diren jolasak, baina gazteontzat berriak izango dira.

## **Pote zaharka eta elabi-elabika**

Uda partean adibidez, afal ostean sarri jolasten zen "pote zaharka". Gaur egun ezagutzen dugun "bote-bote" jokua da hau. Talde osoa borobilean jarri eta "amia" aukeratzen zen. Hone-tarako, bat, bi, hiru... hogeitamar arte kontatzen zen, 31 lapur eta mikelete. Mikeletea "amia" izango zen.

Tomate edo beste zerbaiten potea ahalik eta urrutien jaurtitzen zen eta amia bila zihoan bitartean

beste guztiak ezkutatu egiten ziren. Hurrengo pausua amiak potea dorrera ekarri ostean, ezkutatuta zeudenak bilatzen hastea zen. Horrela, amiak norbait ikusten zuenean bere izena esaten zuen potea astinduz.

“Elabi-elabika” berriz gaur egun gorde gordeka izenarekin ezagutzen dugun jokua da. Joku hontera gaurko gazte eta ez hain gazteek jolas-ten zuten. Hemen ere amia aukeratu ondoren beste guztiak ezkutatu egiten ziren. Edozein bazter eta gordeleku erabiltzen zen ezkutatzeko baina amiak gordelekua aurkitu ezkeru, akabo. Orduan norberak bere burua amia izatetik libratzea gura bazuen, dorreraino joan behar izaten zuen takarraran, amia baino azkarrago heldu eta bere izena altuan esan.

“Pote zaharka eta elabi-elabika jolas-ten makina bat ortu eta zelai zapaltzen genituen gure ume denboran”, kontatzen digu Dunixen Zuazabeitiak gaztaroa gogoan duela.

### Garizuman txirikiletan

Urte guztian zehar egiten ziren dantzaldiak danbolineruaz baina garizuma sasoiaren ez zegoen horrelakorik. Garizuman txirikiletan



“Elabi-elabika” gaur egun gorde-gordeka izenarekin ezagutzen dugun jokua da


•••••

## Garizuman txirikiletan jolasten zen. Amantala, txirikila eta mazeta beharrezkoak ziren joku honetan aritzeko

ibiltzen ziren gazteak. Amantala, txirikila (makila bat) eta mazeta beharrezkoak ziren jolas honetarako.

Bosteko bi talde egiten ziren. Talde batek mazeta eta txirikila hartu eta plazaren alde batean jartzen zen. Beste taldea plaza guztian zehar banatzen zen (gaurko beisbol partiduetan bezala).

Mazeta eskuan hartuta, taldekideek txirikila airera botatzen zuten gero mazetarekin ahalik eta urrunen bidaltzeko. Bitartean plazan sakabanatutako aurkariak txirikila amantalean airean hartzen



Argazkian painuelitoka jolasten ari dira Argazki zaharrak: “Juegos infantiles en Vasconia” liburua

ahalegintzen ziren. Behin txirikila hartu eta gero osterata jaurtitzen zen bi harriz osaturiko “ate” batetik pasatu behar zen eta. Txirikila atetik pasatzen bazen apotxak lortzen zituen talde honek. “Oso kuriosoa zen apotxan kontua”- gogoratzen du Dunixek- “gure lagun taldean apotx gutxien egiten zuenak merienda pagatu behar izaten zion beste taldeari. Merienda Apotzaetxebarrin egiten zen, arraultz, txorixo eta sagardoarekin. Beharbada bertatik datorkio “apotxak” izen berezi hori, Apotzaetxebarrira joaten gineneko ohitura hartatik”.

### Errekreoa tortoliska

Eskola orduko errekreotan neskek tortoliska jolasten zuten. Neskek ziren trebeenak jolas honetan, mutilek ez baitzuten afizio handirik. Pelota bat eta sei tortolis (ardien atzeko hankako belauneko hezurra) behar ziren tortoliska jolasteko. Partaide kopurua gutxienez bi eta gehienez seikoa zen. Lurrean eserita borobil bat eginez jolasten zen. Tortolis bakoitzak lau alde zituen: Primera, segunda,



**“Harrapaketan,  
harri-harrika,  
txorro-morroka,  
kromoka, boletan,  
painuelitoka, soka  
saltoka.. jolasten  
genuen”**

Esteban Gorroñok beste denborapasa bat ere kontatu zigun: arbi-bolaka. Joku hau neguan jolasten zen, arbia hartu eta eskuarekin jaurtitzean zetzan.

Gaur egungo umeak beste joku batzuekin dibertituko dira, baina garai hartakoak ere ez zuten asperetzeko astirik. Jostailu gutxi zituzten baina imaginaziorik ez zitzaaien falta. Orainarte azal dutako joku hauek gutxi batzuk besterik ez dira, Dunixek eta Estebanek hauek baino askoz gehiago aipatu zizkiguten: harri-harrika, txorro-morroka, tronpia, harrapaketan, karakol lasterketa, kaniketana, soka saltoka, pelotana, futboleana, laukora, txiringola lasterketa...

Erreportai honen helburua irakurleak entretenitzeaz gain berriz ere joku hauek berreskuratzea litzateke. Ea diabolarekin moduan, herriko plaza neska-mutilez bete eta txirikila txapelketa antolatzen den.

uri hartuak

tercera eta cuarta.

Honela jolasten zen: lehenengoak, pelota alde batera utziz, tortolis guztiak esku biek hartu eta bota egiten zituen. Ondoren pelota gora bota eta hau goian zegoen bitartean eta esku horrekin “primeran” dagoen tortolis bat hartu behar izaten zen. Horrela “primeran” zeuden guztiak hartu arte. Ondoren gauza bera egiten zen bigarren posizioarekin. Tortolisa hartu edo behar bezala jarri aurretik pelota erortzen bazen huts egiten zen eta hurrengoak jarraituko zuen. Guzti hau egin ondoren beste zailtasun batzuk sartzen ziren.

Tortolisak gordetzeko telazko poltsatxo batzuk erabiltzen ziren, goitik soka batez estutzen zirenak.

**Pin-pinke**

Ezagutzen duzue “Don makarron txispero”... jolasa? Orain urte batzuk pin-pinke deitzen zitzaion jolas horri. Lagun talde bat korroan jarri eta eskuak elkartzen ziren, ondoren abesti hau kantatuz eskuak mugitzen ziren bata bestearekin joaz:

*Pin pin zerra pin  
korta-korta zela min  
behin joan nintzen basora  
harrapau nauen erbi bat  
jo nauen ezkerreko begi gorri-  
gorrixen  
atzera begira dauenantzako  
ezta izango ezta izango  
sekorro!*

Galtzen zuenarentzat zigorra zegoen kosk ala pit.

**Amagoia Lasgabaster  
Andoni Arana**



*Diaboloa osterera ere modan jarri den jolasa da*

## Zezeaga, Elkoro eta Etxaniz herrian izan genituen astelehenean



Herriko pelotari gazteek argazkia atera zuten, Zezeaga, Elkoro eta Etxanizekin batera

Kirolari ospetsuak izan ditugu azken hilabete hauetan herrian. Bai, futbolean, atletismoan, txirrindularitzan eta aste honetan eskuzko pelotako hiru profesional izan genituen gure artean: Aitor Elkoro, Jose Mari Zezeaga eta Jokin Etxaniz.

Herriko pelotari gazteek pozez eta ilusioz betetako arratsaldea pasatu zuten hiru pelotariek. Euren pelotan jolasteko aukera ere izan zuten eta argazkia ere atera zuten elkarrekin.

Datorren astean binakako pelota txapelketa hasiko da eta gure herriko pelotazale gazteek telebistan ikusiko dituzte 3 profesionalak.

## Deba Garaiko herri arteko II. olinpiada

Deba Garaiko kirol zerbitzuak herri arteko II. olinpiada antolatu du. Eskubaloia, water poloa, atletismoa eta areto futbola izango dira olinpiadan sartuko diren kirolak. Bi fase egingo dira: lehena herri mailakoa, abenduaren 16tik 22ra jokatu dena eta bigarrena, Deba Garaiko mailakoa, abenduaren 26tik 30era bitartean egingo dena. Horrela, abenduaren 26an eskubaloian jokatu da Eskoriatzan. Water poloa eta atletismoa Bergaran izango dira abenduaren 27an. Hurrengo egunean saskibaloiak hartuko du lekua Arrasaten eta azkenik abenduaren 30ean areto futbola Oñatin.

Apuntatzeko epea abenduaren 11 artekoa da eta Deba Garaiko edozein kiroletxetan egin daiteke.

Informazio gehiagorako deitu 79 64 61 telefonora.



Basabe Poligonoa A-15  
☎ 79 34 28

**ARETXABAETA**

**M**obiliario  
**A**RENAZA

ALTZARIAK

DISEINUA

APAINKETA

Bizkaia,1 - Tfnoa: 79 08 07 Aretxabaeta


**Dorleta**  
**Taberna**

Loramendi, 8  
Tfnoa: 79 94 15  
**Aretxabaeta**

**BR** Amaia-Berri, S. L.

**Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia**

Otalora, 18 behea  
Tfno-Faxa: 77 06 49 **ARETXABAETA**



**ARGÍ-PLASTIC**

Leihoak egiten dira

Zigarrola 1 8 pabiloia  
**ARRASATE**  
Tfnoa: 79 62 18/ Fax: 77 11 30

# Zezeaga, Elkorro eta Etxaniz

## “Pelotak indarra hartu du telebistari esker”

Pelotari profesionalak ditugu, Jose Mari Zezeaga uberarra, Aitor Elkorro elgetarra eta Jokin Etxaniz bergararra. Joan den astelehenean gurean izan genituen eta herriko pelotari gaztetxoek arratsalde polita pasatu zuten beraiekin.

Binakako pelota txapelketa datorren astean hasiko da eta hiru pelotariak gogor entrenatzen ari dira. Elkorro eta Zezeagak atzean jokatzeko dute, Etxaniz berriz aurrelaria da.

Ea ba txapelik ekartzen duten Gipuzkoa aldera.



Zezeaga, Elkorro eta Etxaniz, Josu Lasagabasterrekin batera

• Zer iruditu zaizue gaur gure herrira etortzea eta pelotari gazteekin egotea?

**Zezeaga:** Polita da. Beste herrietako mutikoak ezagutzen dituzu eta neska-mutikoek zu ezagutzen zaituzte. Ilusio handia da beraientzat.

**Elkorro:** Ondo. Guri ez zaigu kostatzen hona etortzea eta neska-mutikoendako izugarritzko ilusioa da.

**Etxaniz:** Momentu polita pasatu dugu elkarrekin eta umeek pelotan jarraitzeko animatuko dituen ekintza positibo bat izatea gura nuke hau.

• Pelotarekiko afizio handia ikusi duzue gure herrian?

**Elkorro:** Afizioa badagoela ikusi dut eta hori ona da.

**Etxaniz:** Mutiko asko daude eta jendea pelota munduan lanean dabilen seinalea da hori. Adin honetan umeak pelotan ondo pasatzea da garrantzitsua.

• Pelota momentu onean

dagoela uste duzue?

**Zezeaga:** Bai, nik uste dut baietz. Eskuzko pelota momentu onean dago, beste modalitateak ez horrenbeste.

**Etxaniz:** Bueno, nik uste dut telebistak asko bultzatu duela pelota. Telebistatik gero eta indar gehiago ematen ari zaio pelotari.

Pelotarekiko afizioa badago eta nik uste dut mantendu egingo dela.

•••••

“Eskuzko pelota momentu onean dago, beste pelotako modalitateak baino hobeto”

• Binakako pelota txapelketa hasiko da datorren astean.

**Zeintzuk dira zuein helburuak?**

**Zezeaga:** Papel on bat egitea da nire asmoa., eta jakina finalera heltzea.

**Elkorro:** Lan on bat egitea da nire asmoa. Hori lortzen badut aurrera jarraitzeko aukera izango dut, zaila izango da baina ahal duguna egingo dugu.

**Etxaniz:** Emaizta on bat lortzeko ahal dudana egingo dut.

• Aretxabaletako pelotari gazteei zer esango zenieke?

**Zezeaga:** Pelotan aurrera gogoz jarraitzeko gustatu ezkerro behintzat. Umetan beste kirol batzuk probatzea ere ondo dago eta gero gustokoena aukeratu. Pelota kirol polita da eta momentu onean dago gainera.

**Elkorro:** Orain bezala gogor eta gogoz entrenatzen jarraitzeko.

**Etxaniz:** Animatu egingo nituzke pelotan jarrai dezaten edo kirola egiten behintzat.

# Behobia-Donostia lasterketan atxabaltarren sailkapena:

Azaroaren 10ean ospatu zen Behobia-Donostia 20 Kmtako proban atxabaltar askok hartu zuen parte, horien artean bi emakume izan genituen: Maier Etxebarria eta Maite Mateo.


Joseba Larrinaga lehena sartu zen elbarrituen mailan. Euskal makila jaso zuen sari moduan.

Eskumako argazkian autobusean joan zirenak ikusi ditzakegu. Lasterketa hasi aurretik atera zuten. Tartean eskoriatzar batzuk ere badira.

Azpiko zerrenda behin-behinekoa da eta edozein erreklamazio egiteko zuzendu 856 postakutxatilara.



|  |         |                            |         |
|--|---------|----------------------------|---------|
| 20. Ramon Jausoro  | 1:06:21 | 3918. Ion Arriola          | 1:37:54 |
| 53. Kepa Urrea (Joseba Larrinaga)                            | 1:09:32 | 3998. Juan Manuel Vales    | 1:38:13 |
| 187. Antonio Lopez (Eskoriatza)                              | 1:14:05 | 4004. Juan Manuel Martinez | 1:38:13 |
| 707. Jesus Ezkibel (Eskoriatza)                              | 1:20:39 | 4622. Angel Maria Etxabe   | 1:40:46 |
| 776. Joseba Gonzalez   | 1:21:19 | 4687. Estanislao Mulas     | 1:41:00 |
| 779 Xabier Sarasua   | 1:21:20 | 4949. Maite Mateo          | 1:42:03 |
| 949. Joseba Berezibar  | 1:22:30 | 5315. Javier Mar           | 1:43:42 |
| 1123. Jesus Maria Beloki (Eskoriatza)                        | 1:24:01 | 5443. Javier Markos        | 1:44:12 |
| 1382. Igor Dublan  | 1:25:48 | 5545. Iñigo Gastañaga      | 1:44:45 |
| 1534. Fernando Uribealago                                    | 1:26:42 | 5548. Josu Urkia           | 1:44:46 |
| 1538. Iñaki Etxebarria                                       | 1:26:48 | 5550. Juan Migel Ibabe     | 1:44:47 |
| 1654. Ion Urkia  | 1:27:23 | 5556. Javier Etxebarrieta  | 1:44:48 |
| 1727. Jesus Lombide  | 1:27:43 | 6038. Maier Etxebarria     | 1:46:55 |
| 1769. Luis M <sup>a</sup> Azkargorta (Pedro M <sup>a</sup> ) | 1:27:55 | 6160. Asier Aranguren      | 1:47:31 |
| 2269. Mikel Uribetxebarria                                   | 1:30:32 | 6316. Jose Revuelta        | 1:48:15 |
| 2710. Felis Beltran de Heredia                               | 1:32:46 | 6317. Floren Elortondo     | 1:48:15 |
| 2712. Aitor Irure  | 1:32:47 | 6621. Juan Antonio Barrato | 1:49:38 |
| 3267. Javier Garcia  | 1:35:16 | 6623. John Nelson          | 1:49:39 |
| 3855. Sergio Romero.(Eskoriatza)                             | 1:37:43 | 7490. Migel Perez          | 1:54:30 |
| 3901. Unai Beitia.(Eskoriatza)                               | 1:37:52 | 7682. Eugenio Paul Frutos  | 1:55:39 |



## CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8  
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g  
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA





Musika tailerrean dauden 6 urtekoen taldea

# Musikarekin lehen harremana

*Abestiak, ahotsa, inguruko soinuak, erritmoa, memoria, dantza... lantzen dira musika tailerrean*

Leizarra musika eskolak musika tailerra martxan jarri du 5etik 6 urtetara bitarteko umeentzat. Esperientzia berria da gure herrian. Umeari musikarekin lehen harremana izateko aukera ematen zaio.

Umea zazpi urtekin hasten da solfeoan eta adin honekin izaten du instrumentuarekin lehen harremana. Hala ta ere, adin horretara heldu aurretik musikaren munduan aurrezagutzarako aukera eskaintzen du pedagogia experimental honek.

Leire Zuazubiskar arrasatearra da musika tailer honen arduraduna. Astean bi egunetan 5 eta 6 urtekoekin musikako arlo desberdinak lantzen ditu, beti ere, joku eta adin bakoitzerako egokia den metodologiarekin.

Abestiak, ahotsa, inguruko soinuak, erritmoa, inprobizaketa, memoria, dantza... lantzen dira musika tailerrean.

“Abestiekin esaterako, ahotsa

lantzen da eta bertako folklorea ezagutzeko aukera du umeak”, azaltzen du Leirek.

Joku desberdinetan oinarrituta musikarekin zerikusia duten arlo desberdinak lantzen dira. “Erritmoa esaterako gorputzez lantzen da, eskuekin, hankekin...”

Komunikazioa eta taldeko lana ere arlo garrantzitsuak dira. “Umearengan kreatibitatea eta imaginazioa lantzen dituzten jokuak ere egiten ditugu eta guztiaren gaintik komunikazioa eta taldeko lana burutzea garrantzitsua da”.

Guzti honez gain, perkusio instrumentuak jotzeko aukera ere badu umeak goiko argazkian ikusi daitekeen moduan.

Esperientzia berria da gure artean baina umeak pozik joaten dira musika tailerrera. Datorren urtera begira gainera 4 urtekoentzat ere zabalik egongo da musika tailerra.

## MIKELOS

Moda  
Guztia Zuretzat

Iparragirre 3 ☎ 79 36 67  
ARETXABALETA

## ARGAZKI

*Urkiola*

Tfnoa: 79 39 20  
ARETXABALETA

## DOIKALSE

Elektroerosio  
lanak

Basabe Poligonoa C-1-1  
Aretxabaleta  
Tfno: 79 82 44

## JOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia  
kroasantegia  
Janari prestatuak

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08

## LASA AGUILERA

*Aholkularitza*

Andra Mari Auzunea, 3  
☎ 79 29 26  
ARETXABALETA

**MartiW**

RELOJERIA - SIKXITEGIA

*Bere bezeroen zerbitzuan*

Mitarte, 16  
Tfnoa: 79 01 72

# Elurra teilatuetan



M.J. Aretxaga

Ez zaitezte harritu, oraindik ez baita hain behera jeitsi edurra, baina aste honetan Kurtzebarriko tontorra zurituta ikusi dugu.

Eguraldi honekin izara azpian sartzea edo beheko suaren ondoan gelditzea da onena.

Baina dirudienez ez dute denek berdin pentsatzen eta atxabaltar mordoxka joan zen Bilbo aldera joan zen domekan takarraran egitera. Honako hauek dira hain zuzen bertara joan zirenak: **Paco Miguel, Francisco Miguel, Andoni Miguel, Pablo Pastor, Elena Llorente, Antonio Colino, Kerman Colino eta Igor Dublan.**

Denak sano egotea espero dut, eguraldia katarroa harrapetako aproposa izan zen eta. Karrera kontuekin jarraituz denok dakizue Behobia-Donostia lasterketan atxabaltar askok hartu zutela parte (gure lehendakari ospetsua barne). Akaso ez duzue jakingo **Clemente Domingo** praktikantea ere bertan egon zela

Gurutze gorrian lanean. Lana soberan izan zuen jende asko justu samar helmugaratu baitzen.

Mediku kontuekin jarraituz jakingo duzue onezkero Atxabaltatik kolpe batez bi mediku joango zaizkigula. Alde batetik **Luis Orruño** kostaldera doa, Zarautzera. Bestetik, **Manuel Altuna** ere, inork kontrakorik ez badu lortzen behintzat, alde egin beharrean dago, beste mediku batek hartu du plaza hori eta.

Mediku berri hau Gasteiztik etorriko da eta **Juan Jose Galdos** du izena. Beraz, badakizue medikuarengana gutxi joaten zaretenok agian hurrengoan ez duzue inor ezagutuko.

Eguraldi hau kartetan jolasteko ere ez da txarra eta hori pentsatu dute nonbait elkarte gastronomikoek. Elkarteen arteko mus txapelketa jokatzeko ari da. Dagoeneko Uratz alden badituzte txapeldunak: lehenak, **Angel Martinez** eta **Jose Angel Oianguren**, bigarrenak **Jose Luis Errasti** eta **Jose Gato**, hirugarrenak, **Jose Larrabe** eta **Jose Angel Iturbe** eta laugarrenak, **Santi Isasmendi** eta **Javier Sanz**.

Beste gai batzuetara pasatuz pelota munduan ere izan ditugu berriak Aretxabaletan. Lau terdiko txapelketan parte hartu duten hiru figura izan ditugu tartean, **Zezeaga, Etxaniz** eta **Elkoro**. Partidua jokatzeko beste baten beharra zutenez **Josu Lasagabaster** hartu zuten eginkizun horretarako. Ziur zerbait ikasiko zuela.

Eta txipli-txapla pun ni banoa gaztainak jaterra.



*Inobezek ala Inok ez?*

Marrazkiak: Mikel Arroiaibe

**loramendi**  
euskerak elkartea



# Auzolanaren ostean...

*Hona hemen aste honetako argazki zaharra, kuriosoa benetan.*

*Abadea **Don Francisco Belaunzaran Zuloaga** dugu. 1880an jaio zen Berastegin eta 1910ean ordenatu zen. Cuban egon ondoren Izurietara etorri zen parroko. Erretratista amorratua, argazkia berak atera zuen. Gramola ere berea zen. Hil ondoren bere ondasunak banatu zituen, zati bat Usitteko elizarentzat utziz.*

*Azgarzi hau orain dela laurogei urte atera zuen Usitteko abatetxearen ortuan.*

*Arratsalde hartan, urtero irailaren hasieran egiten zuten moduan, Usitteko etxe desberdinetako lagunak bildu ziren auzolanean bidea konpontzeko. Lan egunari amaiera emateko merienda on bat egin zuten, ardoa, ohiturak agintzen zuten moduan, herriko udaletxearen kontura zelaririk.*

*Egun hartan musika ere izan zuten eta ikusten duzuen bezalako arreta haundia jartzen zuten tramankulo bitxi hartatik ateratzen zen soinua entzuteko.*

*Tamalez, ez dakiguna da zein den hor agertzen den auzotar bakoitza. Norbaitek baleki deitu dezala Aretxagazetara. Ondo legoke zeintzuk diren jakitea.*



## ANGEL ZUBILLAGA

## "Urduria naiz baina haserretzen gatxa"



10 urte daramatza Angel Zubillagak MAPFRE aseguru etxean lanean. Hasieran plazan hasi zen baina gaur egun Erreka-barrenen du bulegoa. Bere esanetan edozer gauza asegura daiteke, baita txakurrak ere.

• **Zer motatako bezeroak izaten dituzue?**

*Denetarikook, gazteak, helduak...*

• **Zer da gehien aseguratzen dena?**

*Kotxea, derrigorra da eta.*

• **Aseguru merkeena? Eta garestiena?**

*Merkeena asistentziako segurua. Garestiena kotxeena.*

• **Zein aseguru mota eskaintzen duzue?**

*Falta egiten duen dena; txakurrak aseguru behar badira, horiek ere bai.*

• **Emakume edo gizonezkoak gehiago?**

*Emakumezkoak.*

• **Asteko egunik onena? Eta egunekoa?**

*Zapatua. Eta eguneko momenturik onena gaba.*

• **Asteburu bat pasatzera nora?**

*Edozein lekutara, lasaia bada.*

• **Nora joango zinake bizitzera?**

*Atxabaltan gustora nago.*

• **Akats bat?**

*Urduria naiz.*

• **Bertute bat?**

*Haserretzen gatxa naiz.*

• **Non gustatuko litzaizuke lan egitea?**

*Hemen gustora nago.*

• **Aktore bat.**

*Sean Connery.*

• **Filmeak koloretan ala kolore barik?**

*Koloretan.*

• **Gehien gustatu zaizun pelikula?**

*"Granujas a todo ritmo".*

• **Zein animalia edukiko zenuke etxean?**

*Bat bera ere ez.*

• **Bainujantzia ala berokia?**

*Bainujantzia.*

• **Idazle bat.**

*Bernardo Atxaga.*

• **Galdu duzun azken gauza?**

*Oraintxe bertan artaziak.*

• **Lore bat?**

*Larrosa.*

• **Egiten duzu kirolrik?**

*Ikusi.*

• **Atletik ala Erreala?**

*Erreala!!!*

**Jennifer Nelson**  
**Amaia Murgiondo**

liburu berriak  
liburutegian

**A**zarroan erositako liburuekin aukeraketa bat egin eta honako zerrenda hau egin dugu. Batez ere nobelak erosi ditugu eta haurrentzako liburuak, baina kontsulta libururen batzuk ere eskuratu ditugu, zerrendan ikusiko duzuen moduan.

**Liburuak:**

- Trainspotting/Irvine Wels
- Babel/Patti Smith
- Te di la vida entera/ Zoé Valdés
- El desencuentro/Fernando Schwartz
- El café te hará negro/ April Sinclair
- Modelos de mujer/Almudena Grandes
- El jugador de ajedrez/Waldemar Lysiak
- Más allá del mar de hielo/William Sarabande
- El corredor de las tormentas/William Sarabande
- Esos cielos/Bernardo Atxaga
- Guía práctica para usuarios de Windows 95/ Miguel Pardo Niebla
- Conéctate al mundo de internet/Ed Krol
- Hadas/Descritas e ilustradas por Brian Froud y Alan Lee

**Haur literatura:**

- ¡Cómo molo! (otra de Manolito Gafotas)/ Elvira Lindo
- El libro de las virtudes para niños/ William J. Bennett
- Osito pardo ¿Qué sueñas?/Hans de Beer
- Oposiciones a bruja y otros cuentos/José Antonio Cañizo
- Hiru kartu txiki/Nicola Smee
- Ikas eta jolas/Gloria García
- Nola bizi, zazpi bizi/Yolanda Arrieta
- Giza gorputza/Tim Odam

**Joseba Lopez de Armentia**

**BERGARA**



**Azaroak 29**

**KALE ANTZERKIA**

**TUNANTES DEL NORTE** antzerki taldearekin kale antzerkia arratsaldean San Martin plazan. HIES EKIMENAK ANTOLATUTA.

**Azaroak 30 zapatua**

**ANTZERKIA**

**Txalo taldearen "Xagu tranpa" (Agatha Christie).** Gaueko 10,30etan Novedades aretoan.

**Azaroak 30-Abenduak 8**

**ERAKUSKETA**

**Lumatxoz egindako marrazkiak.** Francisco Javier Centenoren eskutik. Kultur etxean.

**ESKORIATZA**



**Euskararen  
astea**

**Azaroak 24**

**ERAKUSKETA**

**Perretxikuak, sendabelarrak, fosilak eta mineralak.** Herriko plazan goizeko 10etatik aurrera.

**ARRASATE**



**Azaroak 28**

**ZINEA**

**"MALENA ES UN NOMBRE DE TANGO".** Amaia Antzokian gaueko 9,30etan.

**Azaroak 15etik 27ra**

**ERAKUSKETA**

**"LIZARDI 1896-1996"** Monterron kultur etxean.

**Azaroak 25-Abenduak 1**

**ERAKUSKETA**

**"EL ARTE DE LA ESCRITURA"** Harresi aretoan.



**JOSE MARIA AGIRRE**  
Xabier Lizardi (1896-1933)

**ERAKUSKETA**

Monterron kultur etxean, abenduaren 15etik 27ra.

**ARETXAZOKA**

**LANA**

• Industrialdean (B-3) kokatzen den Robber Lan S. Coop-ek jendea behar du lanerako. FP2 edo antzekoa eskatzen da eta gehienez orain 3 urte ikasketak bukatuta izatea. 16 ordu astean. Interesatuok bertara azaldu.

• **ARDATZA** nekazari sektoreko hamabostekariak **publizista** bat behar du. Zera baloratuko da: nekazari sektorea ezagutzea, kazetaritzako ikasketak izatea, publizitate lana ezagutzea, diseinu grafiko eta ordenadore bidez maketatzen jakitea, komertzial arloan esperientzia eta euskara. Kurrikuluma hona bialdu: Ardatza / Plaza Simon Boli-bar, 14 / 01003 Gasteiz. Epea: azaroaren 30a.

• **BERRIGARA**, Bergarako aldizkariak ondorengo bi lanpostuak betetzeko langileak behar ditu: **Maketatzailea:** Erdi mailako ikasketak. Autoedizio programetan esperientzia: Quark X Press, Fotoshop, Freehand. Urtebeteko kontratu laborala, lan-jardun osoz, luzatzeko aukerarekin. **Kazetaria:** Lizentziatura mailako ikasketak. Euskaraz, ahoz zein idatziz ondo moldatzea. Urtebeteko kontratu laborala, lan-jardun osoz, luzatzeko aukerarekin. Informazio gehiago Berrigara aldizkarian, 76 03 97 telefonoan. Epea: abenduaren 5a. Helbidea: Berrigara Aldizkaria (Errotalde Jauregia) 20570 BERGARA.

**ETXEBIZITZA**

• Leioan pisua osatzeko neska bat behar da. Tfnoa: 79 35 66 (Maidier).

• Aretxabaletan pisu bat alokatu gura nuke. 79 16 15 telefonora deitu goizez 10etatik 12etara eta arratsaldeaz 3,30etatik 8etara bitartean. (Ritagatik galdetu)

• Pisua salgai dago Durana kaleko 33. zenbakian (3. solairua eskuma). Telefonoa 79 64 93. (Eguerdian eta arratsaldean).

• Garaje bat salgai dago Errekabarrenen. Interesatuta zaudetenok deitu 79 69 61 telefonora. (Arratsaldeko 8etatik 10etara bitartean).

• Aretxabaletan lokal konpartitua salgai. Tfnoa: 79 46 20.

• Garaje bat behar dut Portasolen. Telefonoa: 77 00 62.

**BESTELAKOAK**

• Azaroaren 4an erlojua galdu nuen Almenetik Aretxabaletara bidean. Korrea berdea du eta hosto batzuk ditu esferan. Telefonoa: 79 85 74.

• Seat Ronda SS-U salgai: 1460 cm<sup>3</sup> eta 75 CVkoa egoera onean. 100.000 pezeta. Tfnoa: 79 15 96.

• Neska frantsesa klase partikularrak emateko prest Bergaran. Estefaniaz galdetu. Tfnoa: 76 27 16 goizeko 9etatik 11ak arte.



**Azarok 21 eguena**

**HITZALDIA**

**SEGURTASUNA MENDIAN (Lehenengo zatia)**

udaletxeko ganbaran arratsaldeko 7etan hasita. Mendi federakuntzaren laguntzarekin.

**ZINE FORUM-a**

Tril emakume taldeak antolatuta **"UN MUNDO DE MUJERES"** zine forum-a. Arratsaldeko 6,30etatik 9,30etara Loramendiren lokalean. **Amia Vazquez** psikologo-sexologoarekin mahai inguru.

**Azarok 22 eguakotxa**

**PROIEKZIOA**

**Ramon portillak** ("AL filo de lo imposible"ko partaidea) **CERVINO, CERRO TORRE ETA DRU MENDI**en proiektzioa emango du. Arratsaldeko 7,30etan Zaraia zineman.

**Azarok 23 zapatua**

**II. MENDI BIZIKLETA IRTEERA GOIZEAN**

**TXAKUR-LERAK**

Arratsaldeko 4etan Durana kalean.



**Azarok 24 domeka**

**GAZTE IRTEERA**

**MURRUKIXO M.E.ak PAGOETARA** egingo du irteera.

**MENDI IRTEERA**

**ZARAIA M.T. GAZUMARA** irteera.

**Azarok 26 martizena**

**BATZAR NAGUSI ARRUNTA ALMENEN**

Almen Koop. Elkarteak ohizko batzar nagusi arrunta ospatuko du bere areto nagusian.

Bertan 1995-6 ikasturtearen memoria eta kontuak aurkeztuko dira eta 1996-97 ikasturteko Gestio Planaren berri emango da. Batzarra azaroaren 26an martizenez egingo da, lehenengo deialdia arratsaldeko 5,30etan eta 6etan bigarrena.

**Azarok 27 eguaztena**

**PROIEKZIOA**

**TURKIATIK BIRMANIARA BIZIKLETAZ.**

**Amia Elozegi-Esther Mugertza**

Turkia, Kurdistan, Iran, Balutxistan, Pakistan, Hunza, Baltistan, Punjab, India dira proiektzio honetan ikusiko ditugun herrialdeak. 10.000 kmtako ibilbidea. Arratsaldeko 7,30etan Zaraia zineman.



**LASAGABASTER**

**Zure Konfiantzazko Denda**

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE

TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

**Azaroak 28 eguena**

**HITZALDIA**

**SEGURTASUNA MENDIAN** (bigarren zatia). Arratsaldeko 7etan Udaletxeko ganbaran. Mendi federakuntzaren laguntzarekin.

**Azaroak 29 eguakotxa**

**PROIEKZIOA**

**MERU EKIALDEKO ESPOLOIA (6.450 m.) SHIVLING II (6.504 m.)**. Jordi Corominas eta Simon Eliasen eskutik gaueko 10etan Zarcia zineman.

**Azaroak 28 eguena**

**MAHAI INGURUA**

**"EL PODER DE LAS MUJERES"** gaiaren inguruan mahai ingurua. Ondoren eztabaidarako tarteak. Arratsaldeko 6,30etan Loramendiaren lokalean.

**HITZALDIA**

**"LA IDEA COOPERATIVA: DEL SERVICIO A LA COMUNIDAD, A SU NUEVA CREACION"**. Joxe Azurmendi irakaslea izango dugu hizlari. Arratsaldeko 6,30etan Mondragón Eskola Politeknikoan.



**oskorri**

Prezioa: aurrez: 1.000 pezeta

Takilan: 1.200 pezeta

Txartelak salgai: **Aretxabaletan:** Arlutz eta Loramendi E.an.

**Bergaran:** Pol-pol tabernan

**Oñatin:** Guria tabernan

**Arrasaten:** AED eta Hire liburudendan

**Eskoriatzan:** Arrano tabernan

**Azaroak 30 zapatua**

**ORIENTAZIOARI BURUZUKO KURTZO PRAKTIKOA**

**MENDI IRTEERA** (Kurtso praktikoa). Ondoren babajana.

**Abenduak 1 domeka**

**PROIEKZIOA**

**KANGCHENJUNGA ETA SHISHA PANGMA**ko Iñurrategi anaien proiektioa arratsaldeko 7etan Zarcia zineman.

**Abenduak 7 zapatua**

**ANTZERKIA**

**"FLORIDO PENSIL"** antzerkia Zarcia zineman. **ARATZ**, Atzeratuen aldeko Elkarteak antolatuta.



**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Aretxabaleta**

- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 79 10 52
- Euskaltea 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkarteak 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi E.E. 77 0970
- Murruxio M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otalora 79 79 99
- Ludoteka 79 05 81
- Musika Eskola 79 36 50
- Ortzadar 79 01 84
- Aretxagazeta 79 01 05

**Udaltzaingoa**

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 77 91 06
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

**Denetarik**

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 19
- Larrialdiak (Arrasate) 77 10 43
- SOS Deiak 088

**ITURGINTZA**




Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87



# Mondeo

*Mondeo berria,  
sentimeneztat plazerra.*



**MUGARRI**

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE • Tel.: 79 07 44 / 54